



Udalerri bihurtu zeneko 35. urtemuga ospatu du Berriozarrek

Berriozar celebra 35 años de municipio independiente



INFORMAZIO INTERESGARRIA INFORMACIÓN DE INTERÉS

Udala / Ayuntamiento

948 30 00 05
»» berriozar@berriozar.es

Udaltzaingoa / Policía Municipal

639 400 906 / 948 30 07 08
»» policia@berriozar.es

Zerbitzuak / Servicios

Euskara / Euskera

948 30 03 59
»» euskara@berriozar.es

Kultura / Cultura

948 30 16 56
»» cultura@berriozar.es

Kirolak / Deportes

948 30 16 36
»» deportes@berriozar.es

Berdintasuna / Igualdad

948 30 16 31
»» igualdad@berriozar.es

Programa LGTBI

»» lgtbi@berriozar.es

Diversidad Cultural / Kultur Aniztasuna

948 30 00 05 - Ext. 154
»» diversidadcultural@berriozar.es

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea / Mancomunidad Servicios Sociales

948 30 00 07
»» serviciosocial@manserso.org

Ludoteka / Ludoteca

607 22 89 08
»» ludotekaberriozar@gmail.com

Gaztegune

673 15 95 11
»» gaztegune@berriozar.es

Bake Epaitegia / Juzgado de Paz

948 30 08 79

Liburutegia / Biblioteca

948 30 17 65
»» biblibrr@cfnavarra.es

Iruñalde Eguneko Zentroa / Centro de Día Iruñalde

692 075 708
»» centrodediaberriozar@berrikilan.es

Kiroldegia / Polideportivo

948 30 17 19
»» poliberriozar@berrikilan.es
info@berrikilan.es

Bestelakoak / Otros

Musika Eskola / Escuela de Música

948 30 04 30
»» musica@berriozar.es

Haur Eskola / Escuela Infantil

848 46 38 44 / 673 292 922
»» eimurtxintxa@berriozar.es

Mendialdea I Eskola / Escuela Mendialdea I

948 63 35 34
»» cpberrio1@educacion.navarra.es

Mendialdea II Eskola / Escuela Mendialdea II

948 63 35 36 / 722 899 173
»» mendialdea.ip2@educacion.navarra.es

Auzalor AEK Euskaltegia

948 30 06 02
»» berriozar@aeek.eus

Institutua / Instituto

948 30 94 05
»» iesoberr@educacion.navarra.es

Done Eztebe Erretiratuen Elkarte / Club de Jubilados/as San Esteban

948 30 13 08
»» jubiladosesteban@hotmail.com

Osasun Etxea / Centro de Salud

948 30 94 04



Berriozar

Udalaren informazio aldizkaria / Boletín de información municipal
2026 EKAINA-JUNIO / Nº 7. ALEA

Argitaratzailea: Berriozarko Udala.
Erredakzio Kontseilua: Iker Mariezkurrena,
Félix Puyo, Arantxa Ríos, Iñaki Bernal,
Francisco Javier Torrecillas eta Daniel Cuesta.

Egilea: Heda Comunicación S.L.

Argazkiak: Jon Urriza, Anne Arguiñariz,
Pablo García.

Ale kopurua: 4.500 ale.
Doako banaketa.


Edita: Ayuntamiento de Berriozar.

Consejo de redacción: Iker Mariezkurrena,
Félix Puyo, Arantxa Ríos, Iñaki Bernal,
Francisco Javier Torrecillas y Daniel Cuesta.

Realiza: Heda Comunicación S.L.

Fotografías: Jon Urriza, Anne Arguiñariz,
Pablo García.

Tirada: 4.500 ejemplares.
Difusión gratuita.



Ezagutu Berriozar Conoce Berriozar

● Done Eztebe plazaren 1972 eta 1979 arteko hirigintza-garapenak eztabaida handi-handia eragin zuen gure herrian. Izan ere, Juan Lanciegok, hasieran, 10 solairuko dorre bat eta lau solairuko bi bloke egitea proposatu zuen, herrian eztabaida bizia sortuta, eta Kontzejua erabat aurka agertuta. Bizilagunek proiektuaren aurka agertutako jarrera ikusirik, hasierako diseinua aldatu zen, dorrea ezabatuz; haren ordean, lurren lagapena negoziatu eta, haietan, gaur egungo Eguzki plaza sortu zen.



● El desarrollo urbanístico de la plaza San Esteban entre 1972 y 1979 estuvo marcado por una fuerte controversia. El planteamiento inicial de Juan Lanciego incluía una torre de 10 pisos y dos bloques de cuatro alturas, lo que generó un intenso debate social y la oposición directa del Concejo. Ante la presión vecinal para frenar este proyecto, se reconsideró el diseño original, suprimiendo la torre y, en su lugar, se negoció la cesión de terrenos que darían origen a la actual Plaza Eguzki.

Berriozarko argazki zaharrak UIAn argitaratu nahi badituzu, bidali info@heda.es helbide elektronikora, izena adierazita eta, ahal bada, argazkiari buruzko datu batzuk ere bai (noiz eta non egina, jarduera, etab.).

Las personas interesadas en publicar en el BIM fotografías antiguas de Berriozar pueden enviarlas al correo electrónico info@heda.es, indicando su nombre y, si es posible, algunos datos sobre la fotografía (fecha, lugar, actividad, etc.).

Bide segurtasuna: patinete elektrikoak kontrolatzeko eta araudia betetzeko kanpaina

Azken asteotan, Berriozarko udaltzaingoak, Iruñerriko beste segurtasun kidego batzuekin batera, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak eta ibilgailu pertsonal arinak kontrolatzeko kanpaina berezia egin du. Ekimen bateratuaren helburu nagusia izan da garraio-bide horiek egungo araudia betetzea eta, horrela, gure kaleetako bide segurtasuna eta bizikidetzaren indartzea.

Udaltzaingoak oroitarazi du derrigorrezkoa dela ibilgailua Trafiko Zuzendaritza Nagusiko (DGT) webean erregistratzea, identifikazio-etiketak agerian eramatea eta erantzukizun zibileko aseguruaz zateha. Bestalde, ibilgailu horiek debekatua dute espaloietan eta oinezkoendako eremuetan ibiltzea, eta galtzada edo bidegorriak erabili behar dituzte, gehienez 25 km-ko abiadura, betiere. Gidariak, bestalde, gainerako ibilgailu motordunen gidarien alkohol eta droga tasa berberak bete behar dituzte.

Seguridad vial: Campaña de control y normativa para patinetes eléctricos

Durante las últimas semanas, la Policía Municipal de Berriozar, en coordinación con otros cuerpos de seguridad de la Comarca de Pamplona, ha llevado a cabo una campaña especial de control de Vehículos de Movilidad Personal (VMP) y Vehículos Personales Ligeros (VPL). El objetivo principal de esta iniciativa compartida ha sido garantizar que este tipo de transporte cumpla con la normativa vigente, reforzando así la seguridad vial y la convivencia en nuestras calles.

Policía Municipal recuerda que es obligatorio registrar el vehículo en la web de la Dirección General de Tráfico (DGT), portar la etiqueta identificativa visible y contar con un seguro de responsabilidad civil. En cuanto a la conducción, los VMP tienen prohibido circular por aceras y zonas peatonales, debiendo usar la calzada o vías ciclistas con una velocidad máxima de 25 km/h. Además, las personas que los conducen están sujetas a las mismas tasas de alcohol y drogas que el resto de vehículos a motor.

Pazienteen kopuru mugatua Osasun Etxean, arreta hobetzeko

● Osasun Etxeak antolaketa plana jarri du abian ekainaren 1az geroztik, familiako medikuen eguneko paziente kopurua mugatzeko, hots, 32 lagun gehienez, arreta hobetzeko, pazienteen eta profesionalen osasuna babesteko, eta osasun publiko jasangarria sustatzeko. Datozen asteotan, informazio saioak egingen dira neurria herritarrei azaltzeko.

Límite de pacientes en el Centro de Salud para mejorar la atención

● El Centro de Salud ha puesto en marcha a partir del 1 de junio un plan organizativo que limita el número de pacientes diarios de las y los médicos de familia a 32 personas con el objetivo de mejorar la atención asistencial, proteger la salud de pacientes y profesionales y favorecer una sanidad pública sostenible. En las próximas semanas se van a realizar sesiones informativas para explicar esta medida a la población.

Berriozar bizikleta elektriko publikoaren sistema mankomunatu berrian sartu da

● Bizikleta elektriko publikoaren sistema mankomunatu berrian sartzea erabaki du Berriozarko Udalak. Horretarako, Iruñerriko Mankomunitatearen eskuetan utziko du zerbitzuaren eskumena, erakunde horrek ezarriko baitu sistema berria proiektuan kide diren udalerrietan.

Proiektuaren arabera, hiru gune paratuko dira Berriozarren; eta 20 euskarri eta 10 bizikleta, gune bakoitzean. Aurreikuspenen arabera, lehen urtearen kostua 150.000-180.000 euro izanen da; hurrengo urteetan, berriz, 60.000-90.000 euro.

Teknikoki bideragarriak badira, guneak hiru kokaguneotan jartzea proposatu da: Gipuzkoa etorbidean, Sorgiñe plazaren parean; Gipuzkoa etorbidean, Decathlon parean, eta Probintzietako Errege Abeldidea kalean, Haur Eskolaren parean.

Iruñerriko Mankomunitatea arduratuko da zerbitzua 10 urterako ezartzeaz. Zerbitzua bere gain hartzen duen enpresak 6-7 hilabeteetan abiarazi beharko du sistema; beraz, aurreikuspenen arabera, zerbitzua 2027ko hasieran hasiko da funtzionatzen.

Berriozar se integra en el nuevo sistema mancomunado de bicicleta eléctrica pública

● El Ayuntamiento de Berriozar ha aprobado su integración en el nuevo sistema mancomunado de bicicleta eléctrica pública. Para ello, va a delegar la competencia del servicio en la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona, que será la encargada de la implantación del sistema en los diferentes municipios que participan en el proyecto.

El proyecto propone la implantación de tres estaciones en Berriozar, con 20 anclajes y 10 bicicletas por estación, con un coste previsto ese primer año de 150.000-180.000 euros y de 60.000-90.000 euros los siguientes años.

Las ubicaciones propuestas de las tres estaciones, siempre que técnicamente sean viables, son la Avenida de Gipuzkoa a la altura de la plaza Sorgiñe, la Avenida de Gipuzkoa a la altura de Decathlon y la calle Cañada Real de las Provincias a la altura de la Escuela Infantil.

La Mancomunidad de la Comarca será la encargada de llevar a cabo la implantación del servicio para un total de 10 años. La empresa adjudicataria dispondrá de un plazo de 6-7 meses para implantar el sistema, por lo que se prevé que el servicio comience a funcionar a comienzos de 2027.

Hiri mugikortasun jasangarriko diagnostikoa aurkeztu da

Berriozarko Udalak udalerriko hiri mugikortasun jasangarriko diagnostikoa aurkeztu zuen herritarren aurrean, joan den maiatzaren 4an. Agiria Suma aholkularitza-enpresak landu du herritarren joan-etorriak gure udalerrian nola egin planifikatzeko eta modu jasangarriagoak sustatzeko, biztanleen bizitza hobetze aldera.

Agiriak esparruz esparru zehaztu du zertan den mugikortasuna gure herrian (oinez, bizikletaz eta autoz), bai eta beste gauza interesgarri batzuk ere, hala nola ibilgailuen aparkamendua, salgaien garraioa, eskualdeko garraio publikorako sistema, edo egungo mugikortasun sistemak ingurumenean duen eragina.

Era berean bildua dago nola egin den teknikarien eta herritarren parte-hartzea diagnostikoan. Honatx, parte-hartzaileak: hainbat udal arlo, Gipuzkoa etorbidea berroneratzeko proiektua idatzi duen taldea,

ikastetxeetako zuzendaritza taldeak, Iruñerriko Mankomunitatea, herriko elkarteak eta taldeak, merkataria eta, herritarrek, oro har (joan den martxoan egindako kontsultan, adibidez, 570 lagunek parte hartu zuten). Herritarrei egindako kontsultan bildu diren ekarpenak hainbat gairi buruzkoak dira; billabesen zerbitzua hobetzea, bizilagunen aparkatze eremu arautua ezartzea, patineteak eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak kontrolatzea, eta hobekuntzak egitea bai oinezkoendako azpiegituran, bai espaloietan.

Diagnostikoa bigarren faserako lanaren oinarria izanen da. Fase berrian, herritarren parte-hartzea areagotzeaz gain, helburuak zehaztu, neurri zehatzak landu eta jarraipen plana jarriko da abian.



Presentado el diagnóstico del Plan de movilidad urbana sostenible

El Ayuntamiento de Berriozar presentó el pasado 4 de mayo a la ciudadanía el diagnóstico del Plan de movilidad urbana del municipio, un documento elaborado por la consultora Suma con el objetivo de planificar de manera ordenada cómo se desplazan en el municipio las personas, fomentando modos más sostenibles para mejorar la vida de sus habitantes.

El documento detalla la realidad actual de la movilidad en el municipio en sus diferentes ámbitos (peatonal, en bicicleta y en coche), y otros aspectos de gran interés como son el

estacionamiento de vehículos, el transporte de mercancías, el sistema de transporte público comarcal o el impacto ambiental del sistema actual de movilidad.

También se hace referencia a cómo se ha llevado a cabo la participación técnica y ciudadana en este diagnóstico, en el que han participado diferentes áreas municipales, el equipo redactor del proyecto de regeneración de la Avenida de Gipuzkoa, el equipo directivo de los colegios, la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona, asociaciones y colectivos locales, comerciantes y ciudadanía en general (a través de una consulta llevada a

cabo el pasado mes de marzo que contó con la participación de 570 personas). Las sugerencias recogidas en la consulta ciudadana abordan temáticas como las mejoras en el servicio de villavesas, la implantación de la zona regulada de aparcamiento para residentes, el control de patinetes y vehículos de movilidad personal y las mejoras en la infraestructura peatonal y aceras.

Este diagnóstico va a ser la base de trabajo para la segunda fase, que incluirá más participación ciudadana y la definición de objetivos, la elaboración de medidas concretas y la puesta en marcha de un plan de seguimiento.

2025eko kontu orokorra, onetsia

● Udaleko osoko bilkurak 2025eko kontu orokorra onetsi zuen, joan den apirilaren 29an, ez baitzen inolako erreklamaziorik izan jendaurrean jarrita egon zen bitartean. Kontu-hartzailearen txostenak hainbat gauza nabarmendu ditu, hala nola aurrekontuaren betetze maila handia, urtealdian izaniko superabita, zorrik ez izatea eta inbertsio gaitasun handia. Horrela, kontu orokorraren aurrekontu superabita 291.034,26 eurokoa izan da eta, doikuntzen ondotik, berriz, 1.549.552,69 eurokoa. Bestalde, 5.657.957,46 euroko diruzaintza gerakina dago gastu orokorretarako, eta 1.429.328,29 euroko aurrezki gordin eta garbia. Zorpetze maila % 0 da.

Bilkura berean, Berrikilan, S.L. Udal Sozietatearen 2025eko kontuak onetsi ziren, 5.129,05 euroko emaitza positiboa izan duela, bai eta Usalanda Gestión Pública, S.L. Udal Sozietatearen kontuak ere, 24.570,69 euroko emaitza negatiboarekin.

Aprobada la Cuenta General de 2025

● El Pleno del Ayuntamiento aprobó el pasado 29 de abril la Cuenta General del ejercicio 2025, una vez finalizado el plazo de exposición pública sin que se formulase reclamación alguna. El informe de Intervención destaca el alto grado de ejecución del presupuesto, el superávit alcanzado, la inexistencia de deuda y la alta capacidad de inversión. Así, la Cuenta General presenta un superávit presupuestario de 291.034,26 euros y un superávit presupuestario después de ajustes de 1.549.552,69 euros, con un remanente de Tesorería para gastos generales de 5.657.957,46 euros y un ahorro bruto y neto de 1.429.328,29 euros. El nivel de endeudamiento es del 0%.


En la misma sesión se aprobaron las cuentas de 2025 de la Sociedad Municipal Berrikilan, S.L., con un resultado positivo de 5.129,05 euros, y de la Sociedad Municipal Usalanda Gestión Pública, S.L., con un resultado negativo de 24.570,69 euros.

Udalerri bihurtu zeneko 35. urtemugaren ospakizuna

Berriozarko Udalak ekitaldi instituzional bat egin zuen, joan den apirilaren 24an, batzar aretoan, udalerri independente bihurtu zeneko 35. urtemuga (1991-2026) ospatzeko. Ekitaldian, herriaren ibilbidea nabarmendu zen, bai eta hiru

hamarkadatik gorako bide autonomoan izaniko bilakaera administratiboa ere. Udalbatza demokratikoen ordezkariak bildu ziren (berrogeita hamar baino gehiago), Kontzeju zenetik hona egindako udal lanaren esker onean. Hantxe izan

ziren, besteak beste, udalean urte horietan buru izandako bost alkate: Estela Vasco Kontzejuko burua (1984 – 1987); José Manuel Goldarazena, alkatea (1999-2000); Xabi Lasa, alkatea (2007-2015); Raúl Maiza, alkatea (2015 eta 2023); eta Iker Mariezkurrena, alkatea 2023tik hona. Halaber, alkate kargua bete zuten pertsona zenduen senideak. Ekitaldiari amaiera emateko, Doinua Musika Banda, Elkarrekin abesbatza eta Txori Zuri Dantza Taldea aritu ziren.



Berriozar celebra 35 años de municipio independiente

El Ayuntamiento de Berriozar conmemoró el pasado 24 de abril el 35º aniversario de su constitución como municipio independiente (1991-2026) con un acto institucional celebrado en el Salón de Plenos. En la cita se puso en valor la trayectoria de la localidad y su evolución administrativa a lo largo de más de

tres décadas de autonomía. El evento reunió a más de medio centenar de representantes de las distintas corporaciones democráticas, en un reconocimiento a la labor municipal desarrollada desde la etapa del Concejo, iniciada en 1979. En el encuentro estuvieron presentes cinco de los alcaldes y alcaldesas

que han liderado el municipio durante este periodo -Estela Vasco, presidenta del Concejo entre 1984 y 1987; José Manuel Goldarazena, alcalde entre los años 1999 y 2000; Xabi Lasa, alcalde entre 2007 y 2015; Raúl Maiza, alcalde entre 2015 y 2023; e Iker Mariezkurrena, alcalde desde 2023 hasta la actualidad-, además de familiares de otras personas que ocuparon este cargo y ya han fallecido. La música y la danza cerraron el evento con las actuaciones de la Banda de Música Doinua, la Coral Elkarrekin y Txori Zuri Dantza Taldea.

“Oreka eraikiz”, artea udaletxearen ondoan

● Berriozarko Udalak eta Iruñeko Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolak eskultura multzo iraunkorra inauguratu dute udaletxeko sarreran. Hareharriz ondu dute Eskultura Tekniketako Naia Eslava, Gorka García de Eulate, Benjamín Landa eta José Manuel Sánchez ikasleek. Lanak irudikatzen dituen figurek kubo gorriekin elkarreragiten dute orekaren gaineko solasaldian. Proiektua Héctor Urrea irakasleak koordinatu du.

Jende andana bertaratu zen inaugurazio ekitaldira: Iker Mariezkurrena, Berriozarko alkatea; Asier Costa, Kultura zinegotzia; Sonia García, Nafarroako Lanbide Heziketako Plangintza zuzendaria; bai eta ikasleak, irakasle arduradunak eta udal Zerbitzu Anitzetako taldea ere. Ekimena lankidetzaz hitzarmen baten ondorioa da eta gazte talentua sustatu nahi du, ikasleek benetako lanbide esperientzia bat izan dezaten beren prestakuntzan.



“Construyendo equilibrio”, arte junto al Ayuntamiento

● El Ayuntamiento de Berriozar y la Escuela de Arte y Superior de Diseño de Pamplona han inaugurado un conjunto escultórico permanente en la entrada de la Casa Consistorial. La obra, realizada en piedra arenisca por el alumnado de Técnicas Escultóricas Naia Eslava, Gorka García de Eulate, Benjamín Landa y José Manuel Sánchez, representa figuras que interactúan con cubos rojos en un diálogo sobre el equilibrio. El proyecto ha sido coordinado por el profesor Héctor Urrea.

Al acto de inauguración asistieron el alcalde de Berriozar, Iker Mariezkurrena, y el concejal de Cultura, Asier Costa; la directora de Planificación de Formación Profesional de Navarra, Sonia García; así como el alumnado, el profesorado responsable y el equipo de Servicios Múltiples municipal. Esta iniciativa, fruto de un convenio de colaboración, promueve el talento joven, ofreciendo al alumnado una experiencia profesional real en su formación.

250.000 euro baino gehiago herriko gizarte sarearentzat, hitzarmenen bidez

J

Joan den apirilaren 29an, 2026ko hitzarmenak sinatu ziren Berriozarko Udalaren eta herriko erakunde, elkarte, gizarte talde eta kirol elkarten artean. 258.000 euroko inbertsioa eginez, Udalak 47 talde horien lanaren balioa aitortu du. Izan ere, borondatezko elkartegintzan ari dira; beraz, eragile guztiz beharrezkoak dira gure herrian gizartea kohesionatzeko eta herritarren parte-hartzea bideratzeko.

Kirol arloan, udalaren babesak hamaika talderen jarduera bermatzen du. Honatx taldeak: Berriozar Kirol Elkartea, Mendialdea Kirol Elkartea, klub ugari (futbola, xakea, igeriketa sinkronizatua, zesta punta, judoa eta karatea), Txirindula Taldea eta Korrikolari Taldea.

Udalak gizarte ekintzarekin eta inklusioarekin duen konpromisoaren erakusgarri, akordioak izan dira osasunaren eta gizarteratzearen alde ari diren Emausko Trapuketariak, Secretariado Gitano eta Lantxotegi erakundeekin. Era berean, babesa eman zaie Erretiratuen Elkarteari eta berariazko beharrak artatzen dituzten taldeei: AFAN, ANAIF, ANFAS, Esklerosi Anizkoitza, Arantza Bifidoa eta Eunate.

Berriozarko kultur nortasunak ere babes nabarmena jaso du, Udalaren eta talde aunitzen arteko lankidetzari esker. Hona hemen taldeak: Doinua Musika Banda, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, Elkarrekin Abesbatza, Txori Zuri eta Hulargi dantza taldeak, Harizdi Zarpantzarra,

Zarpantzar Txikia, Berriozarko Gaitariak, Eguzki Txaranga, Aires del Sur Talde Flamenkoa eta Coro Rociero Savia Nueva taldea. Udalak, gainera, funtsezko ekitaldiak babesten ditu: Apirileko Feria (Los Cubas), FICBE, Zulo Alai Olentzerorako, eta Errege Kabalgata.

Euskara sustatzeari eta hezkuntzari dagokienez, hitzarmenak berretsi dira Mendialdea Guraso Elkartarekin, Mendialdea I eta II ikastetxe publikoekin, Berriozar DBHlrekin, AEKko Auzalor euskaltegiarekin, Berriozar Euskara Taldearekin eta Xaloe Telebistarekin. Azkenik, aniztasunaren eta berdintasunaren aldeko jarreraren erakusgarri, laguntza ematen zaie ANAS, ANARAS, Ikastekak Bidean, Saharako Kabiak eta Naizen elkartei.



Más de 250.000 euros para el tejido social local a través de convenios

E

El pasado 29 de abril tuvo lugar la firma de los convenios entre el Ayuntamiento de Berriozar y las diferentes entidades, asociaciones, colectivos sociales y clubes deportivos del municipio para este año 2026. Con una inversión de 258.000 euros, el Ayuntamiento pone en valor el trabajo voluntario y asociativo de estos 47 colectivos, que actúan como motor imprescindible para la cohesión social y la participación ciudadana en nuestro municipio. En el ámbito deportivo, el apoyo municipal asegura la actividad de Berriozar Kirol Elkartea, Mendialdea Kirol Elkartea, los clubes de fútbol, ajedrez, natación sincronizada, cesta punta, judo o karate, Txirindula Taldea y Korrikolari Taldea.

El compromiso con la acción social y la inclusión se refleja en los acuerdos alcanzados con entidades que trabajan por la salud y la integración como Traperos de Emaús, Secretariado Gitano y Lantxotegi. Asimismo, se garantiza el apoyo a la Asociación de Personas Jubiladas y a colectivos que atienden necesidades específicas como AFAN, ANAIF, ANFAS, Esclerosis Múltiple, Espina Bífida y Eunate. La identidad cultural de Berriozar también recibe un impulso decisivo mediante la colaboración con la Banda de Música Doinua, la Comparsa de Gigantes y Cabezudos, la Coral Elkarrekin y grupos de danzas como Txori Zuri y Hulargi, Harizdi Zarpantzarra, Zarpantzar Txiki,

Berriozarko Gaitariak, Eguzki Txaranga, el Grupo Flamenco Aires del Sur y el Coro Rociero Savia Nueva. Además, el Consistorio respalda eventos clave organizados por la Feria de Abril (Los Cubas), FICBE, Zulo Alai en el Olentzero y la Cabalgata de Reyes.

En cuanto al fomento del euskera y la educación, se han ratificado convenios con Mendialdea Guraso Elkartea, los centros públicos Mendialdea I y II, el Instituto Berriozar DBHI, el Euskaltegi Auzalor AEK, Berriozar Euskara Taldea y Xaloe Telebista. Finalmente, la apuesta por la diversidad y la igualdad se consolida a través de la ayuda a asociaciones como ANAS, ANARAS, Ikastekak Bidean, Saharako Kabiak y Naizen.

Aro berria Udaltzaingoan

Iker Arroyo Arrosagaray da Berriozarko udaltzainburu berria. Gure herriak, beraz, aro estrategiko berriari heldu dio, herritarren segurtasun-eredu jakin bat finkatzeko, hurbiltasuneko eredu partekatuan oinarritua. Udaltzainburu berriak esperientzia sendoa du bitartekaritza eta psikologia kriminalean, eta helburu du udaltzaingoa Agenda Komunitarioaren gakoa izatea, udaltzainak bizilagunen arteko topaguneetan eta elkarte bizitzan txertatuz, gatazkak garaiz atzematea lortzeko, herriko errealitate sozialaren ezagutzan oinarrituz. Horretarako, arduradun berriaren asmoa da “entzutea bai lankideei, bai Udalari, eta jakina, herritarrei ere bai, oso garrantzitsua baita”.



Aro berriaren apustua izan da udaltzaingoa erabat txertatzea Berriozarko agenda komunitarioan, udaltzainek bizilagunen arteko topaguneetan eta elkarte bizitzan parte har dezaten sustatuz, beste talde eta udal zerbitzu batzuekin batera. Horrela, tokiko sareko kide izanez, garaiz atzemanen dira premiak eta gatazkak, bitartekaritza eta herriko errealitate sozialaren ezagutzan oinarrituta dauden konponbideak ahalbidetuta. Era berean, kudeaketa-tresna modernoak erabiliz, erantzun poliziala azkarrago iritsiko da, eta horrela, jendeak sumatuko du udaltzaingoa konfiantzazko eta hurbiltasuneko zerbitzu publikoa dela eta hobekuntza etengabean diharduela.



Nueva etapa en la Policía Municipal

Con la incorporación de Iker Arroyo Arrosagaray como nuevo Jefe de la Policía Municipal, Berriozar inicia una etapa estratégica centrada en la consolidación de un modelo de seguridad ciudadana compartida y de proximidad. Esta nueva dirección, que aporta una sólida experiencia en mediación y psicología criminal, busca transformar el cuerpo en una pieza clave de la Agenda Comunitaria, integrando al cuerpo en los espacios de encuentro vecinal y asociativo para lograr una detección temprana de conflictos basada en el conocimiento de la realidad social del pueblo. Para ello el nuevo responsable llega con la intención de “escuchar tanto a las y los compañeros que forman la plantilla, como al Ayuntamiento, y por supuesto, y muy importante, a la ciudadanía”.

La apuesta de esta nueva etapa ha sido la plena incorporación de la Policía Municipal en la agenda comunitaria de Berriozar, fomentando la participación del cuerpo en los espacios de encuentro vecinal y asociativo junto a otros colectivos y servicios municipales. Así, formando parte de la red local, se podrá realizar una detección temprana de necesidades y conflictos, permitiendo soluciones basadas en la mediación y el conocimiento de la realidad social del pueblo. Asimismo, la implantación de herramientas de gestión modernas agilizará la respuesta policial, logrando que el cuerpo sea percibido como un servicio público de confianza, cercanía y mejora continua.



Lehiaketara atera dira Gipuzkoa etorbideko lehen faseko lanak

● Udalak berrikitan atera ditu lizitaziora Gipuzkoa etorbidea berroneratzeko proiektuaren lehen faseko lanak; Berriozarko etorbideko errotondaren eta Iruñalde kalearen arteko tarteari dagozkionak, hain zuzen ere.

Lanak gehenez zortzi hilabetean gauzatu beharko dira eta oinarritzko lizitazio aurrekontua 1.549.546,56 eurokoa izan da (BEZa barne). Lanak aurtengo uztailean esleitzeko asmoa dago, irailean hasteko.

Salen a concurso las obras de la primera fase de la Avenida de Gipuzkoa

● El Ayuntamiento ha licitado recientemente las obras de la primera fase del proyecto de regeneración de la Avenida de Gipuzkoa, correspondiente al tramo comprendido entre la glorieta de la Avenida Berriozar y la calle Iruñalde.

Con un plazo de ejecución de ocho meses y un presupuesto base de licitación de 1.549.546,56 euros (IVA incluido), se prevé adjudicar las obras en julio e iniciarlas en septiembre de este año.

Mankomunitateak ekintza plana abiarazi du poltsak botata uztearen aurka

Martxoaren bukaeraz geroztik, Iruñerriko Mankomunitateak plan bat jarria du abian poltsak botata uztearen aurka, gure eskualdeko lau udalekin elkarlanean; besteak beste, Berriozarkoarekin.

Poltsak botata uztearen aurkako ekintzak urte osoan egingen dira, haien kopurua murrizte aldera. Jende gutxienak uzten ditu poltsak kanpoan botata, horrek begi-bistako eragina sortzen du, eta orain arte hartutako neurrien

bidez ez da arazoa konpondu. Esan behar da sentibilizazio hutsean oinarritutako neurriak izan direla.

Orain, plan berriaren bidez, komunikazio eta sentibilizazio ekintzak egingen dira, hots, esker oneko biniloak nahiz informazioa emateko zutoinak eta totemak paratuko dira botata uzten diren poltsa kopuru handieneko guneeetan; margo horizontalak edukiontzien guneeetan; udalei material pertsonalizatuak banatuko

zaizkie beren ohiko bideetatik zabaltzeko. Bestalde, ikuskapenak areagotzeaz gain, disuasio eta zigor neurriak ugarituko dira; eta aurrebilketa egiteko ibilbide dinamiko berriak ezarriko dira, botata dauden poltsak ahalik eta azkarren biltzeko, poltsak denbora luzean ez egoteko edukiontzietatik kanpo.



La Mancomunidad activa un plan de acción para combatir el bolseo

La Mancomunidad de la Comarca de Pamplona puso en marcha a finales de marzo un plan de acción para combatir el bolseo en colaboración con cuatro ayuntamientos de la Comarca, entre ellos el de Berriozar.

Las acciones, que se van a llevar a cabo durante todo este año, tienen como objetivo reducir el problema que causa el bolseo, un problema

generado por una minoría que causa un impacto muy evidente y que no se ha conseguido reducir con las medidas adoptadas hasta ahora.

Este nuevo plan contempla varias acciones de comunicación y sensibilización (colocación de vinilos de agradecimiento, postes y tótems informativos en puntos con mayor bolseo y pinturas horizontales en islas de contenedores,

y entrega de materiales personalizados para la difusión por parte de los ayuntamientos), el refuerzo de la inspección y de las medidas disuasorias y sancionadoras, y la implantación de nuevas rutas dinámicas de prerrecogida para atajar el bolseo con mayor rapidez, evitando que las bolsas depositadas permanezcan mucho tiempo fuera de los contenedores.

Kirol instalazioak hobetzeko lanak

● Udalak 437.140 euro inbertituko ditu udal kirol instalazioak hobetzeko hainbat lanetan. Uda baino lehen, kanpo igerilekuko hondartzak berriro eta askaldegiko nahiz kanpo komunetako haur jolasen gunea aldatuko da; eta ondoren, goiko terraza estali, aldagela-eremua eraberritu eta, tabernako terrazaren ondoan, haurrendako jolasgune bat jarriko da.

Obras de mejora en las instalaciones deportivas

● El Ayuntamiento va a invertir 437.140 euros en diferentes obras de mejora en las instalaciones deportivas municipales. Antes del verano se va a realizar la reforma de la playa de la piscina exterior y la sustitución de la zona de juegos infantiles del merendero y de los aseos exteriores; y posteriormente se acometerá la cubrición de la terraza superior y la rehabilitación de la zona de vestuarios y se procederá a la habilitación de una zona de juego infantil junto a la terraza del bar.

2030eko Energia Planaren ekintza berriak

● Udalak hainbat neurri hartu ditu energia arloan. Haien artean nabarmentzekoa da energia kudeatzeko SIE softwarea ezarri duela, udal instalazioetako kudeaketa energetikoa hobetzeko eta hobeki gainbegiratzeko, kontsumoak murrizte aldera eta funtzionamendua optimizatze aldera. Era berean, udaleko Atari Energetikoa jarri du abian (<https://portalenergia.herokuapp.com/eu/Berriozar1272/>), ekipamenduetan eta argiteria publikoan kontsumoa zer-nola bilakatzen den jakiteko; bestalde, diagnostiko energetiko-juridiko bat egin du udal eraikinetako kontsumo elektrikoek eta sorkuntza fotovoltaikoaz, eta azkenik, gestoria energetiko bat kontratatu du udalaren energia estrategia zehazten laguntzeko.

Nuevas acciones del Plan Energético 2030

● El Ayuntamiento está llevando a cabo varias actuaciones en materia energética, entre las que destacan la implantación del software de gestión energética SIE, que mejora la supervisión y gestión energética de las instalaciones municipales con el objetivo de reducir los consumos y optimizar su funcionamiento; la activación del Portal Energético municipal (<https://portalenergia.herokuapp.com/eu/Berriozar1272/>), una web donde se puede encontrar información sobre la evolución del consumo en los equipamientos y el alumbrado público; la realización de un diagnóstico energético-jurídico de los consumos eléctricos y generación fotovoltaica en los edificios municipales; y la contratación de una gestoría energética para el acompañamiento en la definición de la estrategia energética municipal.

Berriozar aurrera, etxebizitzak birgaitzeko bidean

Berriozar sendo doa urratsez urrats aurrera berrikinak birgaitzeko bidean, gure kaleetako bizi kalitatea hobetzeko. Izan ere, Berriozarko Udalaren eta Nasuvinsa Sozietate Publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzearen ondorioz, lehen akordioak hartu dira bizilagunen komunitateetan dauden funtsezko beharrak konponduko dituzten obrei ekiteko: irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa. Azken urteetan, komunitate askok erabaki dute eraikina birgaitzea. Izan ere, esperientziak erakusten du inbertsio horrek fakturaren jaitziera hutsa baino askoz ere gehiago eskaintzen duela, inguratzaile termikoa hobetzen denean. Bizitza hobetzen baita, hau da, konfort handiagoa, hezetasun txikiagoak eta temperatura hobeak etxean. Eta irisgarritasunaz ari garenean (atariak eta igogailuak), esan nahi dugu Berriozarko

bizilagunek betiko bizilekuan bizitzen jarraitzeko aukera izan behar dutela, eraikineko oztopoek inor alde egitera behartu gabe. Birgaitzea, azken finean, etxea zaintzea baita, bai eta udalerria zaintzea ere. Bide hori errazte aldera, Nasuvinsak doako zerbitzua eskaintzen du Berriozarren bertan, prozesu osoan aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua emateko. Horrela, bizilagun, teknikari edo finka-administratzaile guztiek zalantzak galdetu eta aukerak baloratzeko parada dute. Nasuvinsako teknikariak harremanean dauden herritarrekin, bai informazio bilera orokorretan (apirilaren 20koa, adibidez), bai komunitateen bileretara joanez, birgaitze prozesua azaltzeko. Garrantzitsuenak baita komunitate bakoitzak informazio argia eta osoa jasotzea erabakirik onena hartzeko. Laguntza publikoak, gainera, lagungarriak dira

bidean aurrera egiteko. Eta 2026an hobetu egin dira. Nafarroako Gobernuak, izan ere, bizilagunen komunitateendako dirulaguntzak handitu ditu; bereziki, inguratzaile termikoari eta irisgarritasunari dagozkien lanetan (lehen kasuan, diruz lagungarria den aurrekontuaren % 50era bitarte, eta halako kopuru batzuk gehienez). Horri gehitu behar zaizkio Berriozarko Udalak dituen dirulaguntzak, birgaitze babesturako laguntzen osagarri, eta zaurgarritasun kasuetarako laguntza bereziak ere aurreikusita. Zure komunitatea eraikina birgaitzea pentsatzen ari bada, une ona da informazioa jasotzeko, alternatibak alderatzeko eta eskura diren laguntzak ezagutzeko. Argibideak eta kontsultak, 848 42 06 00 zenbakian, eta rehabilita@nasuvinsa.es e-mailean.



Berriozar avanza en la rehabilitación de viviendas

Berriozar sigue dando pasos firmes para mejorar la calidad de vida en sus calles a través de la rehabilitación de edificios. Tras la firma del convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Berriozar y la sociedad pública Nasuvinsa, ya se están dando los primeros acuerdos de comunidades vecinales que se animan a abordar obras que resuelven necesidades clave: la accesibilidad y la eficiencia energética. En los últimos años han sido muchas las comunidades que han tomado la decisión de rehabilitar, y la experiencia demuestra que es una inversión que ofrece mucho más que un descenso en la factura cuando se mejora la envolvente térmica. Significa vivir con más confort, con menos humedades y mejor temperatura en casa. Y cuando hablamos de

accesibilidad (portales y ascensores), hablamos de que las vecinas y vecinos de Berriozar puedan seguir viviendo donde siempre lo han hecho, sin que las barreras del edificio les obliguen a marcharse. Rehabilitar es, en definitiva, cuidar el hogar y también cuidar el municipio. Para facilitar este camino, Nasuvinsa ofrece en Berriozar un servicio gratuito de asesoramiento y acompañamiento personalizado durante todo el proceso. Cualquier vecino o vecina, personal técnico o administración de fincas puede ponerse en contacto para resolver dudas y valorar opciones. El equipo técnico se acerca a la ciudadanía en reuniones informativas generales -como la celebrada el 20 de abril- y también acude a juntas de comunidades para explicar el proceso de la rehabilitación. Lo importante es que cada comunidad disponga de

información clara y completa para tomar la mejor decisión. Además, este impulso llega respaldado por las ayudas públicas, mejoradas en 2026. El Gobierno de Navarra refuerza las subvenciones para comunidades vecinales, especialmente en actuaciones de envolvente térmica (hasta el 50% del presupuesto subvencionable, con máximos por vivienda) y en accesibilidad. A ello se suma el programa propio de ayudas del Ayuntamiento de Berriozar, que complementa las ayudas a la rehabilitación protegida y contempla apoyos específicos para situaciones de vulnerabilidad. Si tu comunidad está valorando rehabilitar, este es un buen momento para informarse, comparar alternativas y conocer las ayudas disponibles. Más información y consultas en el teléfono 848 42 06 00 y en el correo rehabilita@nasuvinsa.es.

Jaietako sexu erasoen aurkako kanpaina berria

Udaleko Berdintasun Zerbitzua, dagoeneko, prebentzio kanpaina eta erasoen aurkako jarduketa protokoloa lantzen ari da. Aurreko urteetan bezala, Berriozarko Talde Feministarekin koordinaturik egiten ari dira, indarkeria matxistatik gabeko jai ingurunearen

aldeko konpromiso kolektiboaren indargarri. Aurtengo kanpainak bere funtsezko zutabeei eutsiko die eta Gune More bat paratuko da txosnen barrutian, informazioa, arreta eta laguntza emateko. Bestalde, jaien aurreko asteetan berriazko prestakuntza saioak egingen

dira peña eta txostenetako barretan lan egingen duen jendearentzat, eta sexu erasoen aurkako Koordinazio Mahaia ere hasiko da lanean. Era berean, Udalak ospakizun seguru eta inklusiboen aldeko apustua berretsi du, eta dei ere egin du denon artean arduraz jokatzeko, genero-identitateak, indarkeriak edo sexu-joerak eragindako bazterkeria motarik batere ez izateko.

Behin betiko ordutegiak eta xehetasunak jaien egitarauarekin batera argitaratuko dira abuztuan.

Nueva campaña contra las agresiones sexistas en fiestas

El Servicio de Igualdad del Ayuntamiento ya trabaja en el diseño de la campaña de prevención y el protocolo de actuación ante agresiones. Como en ediciones anteriores, esta labor se desarrolla de forma coordinada con el Talde Feminista de Berriozar, reforzando el compromiso colectivo por un entorno festivo

libre de violencia machista.

La campaña mantendrá sus pilares fundamentales, con la instalación de un Punto Morado en el recinto de txoznas como espacio de información, atención y acompañamiento. Por otra parte, las semanas previas a las fiestas se activarán también las sesiones de

formación específica para las personas que trabajarán en las barras de peñas y txoznas, así como la Mesa de Coordinación contra las agresiones sexistas. Asimismo, el Ayuntamiento reafirma su apuesta por unas celebraciones seguras e inclusivas, haciendo un llamamiento a la responsabilidad compartida para evitar cualquier tipo de discriminación por identidad de género, violencia u orientación sexual.

Los horarios y detalles definitivos se publicarán junto al programa de fiestas en agosto.



Berriozar, erasorik gabeko udalerrria

● Berriozarko Udalak sendotu egin du aniztasunarekin eta errespetuarekin duen konpromisoa, eraso LGTBI+fobikoen aurkako seinale berriak jarriz herriaren sarrera-irteeretan.

Horrenbestez, orain bi seinale mota daude paratuta udalerrriaren sarreretan: batetik, "Berriozarrek ez du eraso sexistarik onartzen" eta, bestetik, "Berriozarrek ez du eraso LGTBI+fobikorik onartzen". Ekimenaren bidez ikusarazi nahi da sexu-joerak edo genero-identitateak eragindako bazterkeria mota guztien aurkako arbuioa, eta sustatu, Berriozar indarkeriarik gabeko gune segurua izatea jende guztiarendako.

Berriozar, municipio libre de agresiones

● El Ayuntamiento de Berriozar ha reforzado su compromiso con la diversidad y el respeto con la instalación de nuevas señales contra las agresiones LGTBI+fóbicas en la entrada y salida de la localidad. Con esta actuación, el municipio completa la señalización de sus accesos bajo los lemas "Berriozar no tolera las agresiones sexistas" y "Berriozar no tolera las agresiones LGTBI+fóbicas". La iniciativa busca visibilizar el rechazo a cualquier tipo de discriminación por orientación sexual o identidad de género, fomentando que Berriozar sea un espacio seguro y libre de violencia para todas las personas.

Berriozarrek aniztasuna ospatuko du, ekainaren 28aren karira

Ekainean, ohi denez, Sexu Askatasunen eta LGTBI+ Harrotasunaren Eguna ospatuko da gure herrian. Egitaraua elkarrekin egin dute Udalak eta Berri Harro taldeak, eta helburua da Berriozar ospakizun eta konpromiso gunea izatea berdintasun afektibo-sexuala aldarrikatzeko.

Jarduerak hilaren 25ean, ostegunarekin, hasiko dira Kulturgunean, film laburrak emanen baitira Zinegoak Nazioarteko Jaialdiarekin elkarlanean, LGTBI+ errealitatei

buruz gogoeta egitera gonbidatuko gaituzten istorioak eta bizipenak kontatzeko.

Gure herrian urtebeteko ibilaldia egin duen honetan, Berri Harro taldea bizilagunen aurrean aurkeztuko da ekainaren 26an,

ostiralarekin. Euskal Herria plaza jaiaren erdigunea izanen da, hots, musika, DJ saioa eta drag emanaldia, aniztasuna espazio publikoan aldarrikatzeko, besta giro eder eta parte-hartzailean.

Berriozar celebra la diversidad con motivo del 28 de junio



Con la llegada de junio, Berriozar conmemorará el Día de las Libertades Sexuales y del Orgullo LGTBI+. La programación, organizada conjuntamente por el Ayuntamiento y el colectivo Berri Harro, busca convertir la localidad en un espacio de celebración y compromiso con la igualdad afectivo-sexual.

Las actividades comenzarán el jueves 25 en el Kulturgune, con una sesión de cortometrajes en colaboración con el Festival internacional Zinegoak, ofreciendo historias y vivencias que invitan a la reflexión sobre las realidades LGTBI+.

Tras un año de trayectoria en la localidad, el

colectivo Berri Harro se dará a conocer ante el vecindario el viernes 26 de junio. La plaza Euskal Herria se convertirá en el epicentro de una fiesta colectiva con música, sesión de DJ y una actuación drag, reivindicando la diversidad en el espacio público a través de un ambiente festivo y participativo.

Prestakuntza teknikoa emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean

● Tokiko Indarkeria Protokoloaren baitan, bi prestakuntza egin dira ikasturte honetan, gure herrian emakumeen aurka izan litezkeen indarkeria kasuak hobeki atzemateko eta erantzun hobea ere emateko. Batetik, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuko langileek berriazko prestakuntza saio bat jaso zuten emakumeen aurkako indarkeriari lotutako adierazle eta alerta-seinaleen gainean.

Koordinazio Mahai teknikoak, halaber, halako kasuak garaiz atzemateari eta alarma-zantzuei buruzko prestakuntza ekintza batean parte hartu zuen. Ruth Iturbidek emanik, saioaren bidez, profesionalak eskura dituzten esku-hartze eta koordinazio tresnak eguneratu zituzten, herrian arreta integral eta eraginkorra ziurtatzeko.

Formación técnica frente a la violencia contra las mujeres

● Dentro del marco del Protocolo Local de Violencia, este curso se han desarrollado dos formaciones orientadas a mejorar la detección y respuesta ante casos de violencia contra las mujeres en el municipio.

Por un lado, las trabajadoras del Servicio de Atención a Domicilio de la Mancomunidad de Servicios Sociales recibieron una sesión específica sobre los indicadores y señales de alerta de violencia contra las mujeres.

Asimismo, la Mesa de Coordinación Técnica participó en una acción formativa sobre la detección temprana y los signos de alarma. Esta sesión, impartida por Ruth Iturbide, permitió a las y los profesionales actualizar sus herramientas de intervención y coordinación para asegurar una atención integral y eficaz en la localidad.

Osasun Etxea ibilaldi osasungarriak egiten hasi da

● Osasun Etxeak jarduera berria jarri du abian ariketa fisikoa egiteko eta harremanak lantzeko: ibilaldi osasungarriak. Izan ere, osasun langileek lagundurik, parte-hartzaileak ordubetez ibiltzen dira oinez, asteazkenetan, goizeko 10etatik 11etara. Ibilaldiaren eritimoari beren kasa jarraitzeko behar den autonomia duten 55 urtetik gorakoek dute parte hartzeko aukera. Interesdunek izena emateko orria bete behar dute Osasun Etxeko harrera mostradorean.

Jarduerari udako hilabeteen ondotik emanen zaio segida.

El Centro de Salud estrena la actividad de paseos saludables

● El Centro de Salud ha puesto en marcha una nueva actividad que combina el ejercicio físico y la socialización: los paseos saludables. Acompañados por personal sanitario, las personas participantes caminan en grupo durante una hora, los miércoles de 10 a 11 de la mañana. Pueden participar en esta iniciativa las personas mayores de 55 años con la autonomía necesaria para seguir el ritmo del paseo de manera independiente. Las personas interesadas deben rellenar una ficha de inscripción específica en el mostrador de admisión del Centro de Salud. Tras los meses de verano, se reanudará la actividad.



Jardueraz beteriko udaberria Eguneko Zentroan

● Apirila hasteko, Eguneko Zentroak bere Apirileko Azoka ospatu zuen. Zehazki, Etxabakoizko dantza taldearen kolorea eta talentua izan zituzten gozagai. Bestalde, Iruñalde erabiltzen dutenek belaualdiarteko topaketak egin dituzte Mendialdea I eta Mendialdea II ikastetxeetako haur hezkuntzako 3. mailako ikasleekin. Izan ere, bi egunez bisita eginik, ikasleek instalazioak ikusi eta han zer egiten den jakin zuten, bertakoekin batera gimnasia eta dantza saioetan parte hartuz.

Eta maiatzean, eskulan saioak egin, eta lanak Berrioarren Egunean jarri ziren ikusgai.

Una primavera con mucha actividad en el Centro de Día

● El mes de abril comenzó en el Centro de Día con la celebración de su propia Feria de Abril, que contó con el color y el talento del grupo de baile de sevillanas de Etxabakoiz. Por otro lado, las personas usuarias de Iruñalde han compartido encuentros intergeneracionales con el alumnado de 3º de Infantil de los Colegios Mendialdea I y Mendialdea II. Durante dos jornadas de visita, el alumnado ha conocido las instalaciones y ha compartido las rutinas diarias, realizando sesiones de gimnasia y bailes.

Y en mayo, la actividad se centró en la realización de manualidades que posteriormente se expusieron en el Día de Berrioazar.

Berriozar herri sahararraren alde, tinko

● Aurreko urteetan bezala, Sahararen aldeko eguna egin da aurten Berrioarren. Horrela, Zulo Alai elkartearen hitzaldi bat egin zen, joan den apirilaren 17an, Mendebaldeko Sahararen dagoen egoeraz mintzatzeko, nazioartean testuinguru berria dagoen honetan. Zehazki, Garazi Hach Embarek mintzatu zen, sahararren eskubideen aldeko ekintzailea eta diasporako kidea. Beste hizlaria Fernando Barrena izan zen. Biharamunean, urtero bezala, saharar herriari elkartasuna agertzeko bazkaria egin zen.



Berriozar reafirma su apoyo al pueblo saharauí

● Como en años anteriores, Berriozar ha vuelto a celebrar una jornada de apoyo al Sáhara. En esta ocasión, la Sociedad Zulo Alai acogió el viernes 17 de abril una charla sobre la situación del Sahara Occidental en el nuevo contexto internacional, con la participación de Garazi Hach Embarek, activista por los derechos saharauis y miembro de la diáspora, y Fernando Barrena. El día siguiente se celebró la ya tradicional comida solidaria con el pueblo saharauí.

"Berriozar elkarbizi" proiektua aurkeztu da

● Urte eta erdian lan handia egin eta gero, "Berriozar elkarbizi" proiektua aurkeztu zen jendaurrean, joan den maiatzaren 7an. 130 lagunek baino gehiagok jakin zuten zertan diren kulturarteko harremanak gaur egun gure herrian, bai eta diagnostikoaren fasetik ateratako ondorioak eta ekimenaren jarduketara ildo nagusiak ere. Uda ondotik, eta era parte-hartzailean, hainbat jarduera jarriko dira abian, bizikidetzak sustatzeko eta indartzeko.

Presentado el proyecto "Berriozar convive"

● Tras un año y medio de intenso trabajo, el proyecto "Berriozar convive" fue presentado públicamente el pasado 7 de mayo. Más de 130 personas conocieron el escenario actual de las relaciones interculturales en la localidad y las conclusiones extraídas de la fase de diagnóstico, así como las principales líneas estratégicas de actuación. Tras el verano, y de manera participativa, se pondrán en marcha varias actividades para fomentar y fortalecer dicha convivencia.



Informazio saioak atzeritarren ezohiko erregularizazioari buruz

Migranteei aholkularitza tekniko eta laguntza emateko asmoz, Berriozarko Udalak prestakuntza saioak egin ditu berriki, atzeritarren ezohiko erregularizaziorako herri ekimen legegilea ardatz harturik. Saio baliagarriak izan dira prozesuan sartzeko beharrezkoak diren baldintzak eta prozedurak argitzeko, herriak jendearen integrazioarekin eta eskubide berdintasunarekin duen konpromisoaren indargarri.

Kalteberatasun txostenaren tramitazioa

Bestalde, Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

lanean ari da atzeritarren ezohiko erregularizazioan -gainerako gizarte erakunde eta instituzio baimendunekin batera-, kalteberatasun txostena tramitatu eta kudeatzeko erakundea baita.

Ziurtagiri eredu hori (doakoa eta Ministerioak egina) bete beharreko baldintza da bakarrik dauden pertsonentzat, hau da, seme-alaba adingabeekin bizi ez direnentzat, desgaitasuna duten edo laguntza behar duten seme-alaba adin nagusikoekin bizi ez direnentzat, eta beren edota bikotekidearen gurasoekin bizi ez direnentzat; halaber, lan kontratua ez dutenentzat edota kontratua lortzeko aukerarik

ez dutenentzat, eta asilorik eskatu ez dutenentzat.

Ezohiko erregularizazio prozesua joan den apirilaren 20an hasi zenetik, 200 lagun baino gehiago joan dira Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatera, kalteberatasun txostena eskatzeko.

Mankomunitateko zerbitzuen erabiltzaileak baldin badira eta, langilerik badago, txostena lehen hitzordu horretan betetzen zaie. Kasu berriak direnean, hitzordua ematen zaie beste egun baterako, pertsonari buruzko informazioa jasotzeko eta txostena behar diren datu guztiekin bete ahal izateko.

Sesiones informativas sobre la regularización extraordinaria de personas extranjeras

Con el objetivo de ofrecer asesoramiento técnico y acompañamiento a la población migrante, el Ayuntamiento de Berriozar ha llevado a cabo recientemente una serie de sesiones formativas centradas en la iniciativa legislativa popular para la regularización extraordinaria de personas extranjeras. Estas jornadas han servido para clarificar los requisitos y procedimientos necesarios para acceder a este proceso, reforzando el compromiso de la localidad con la integración y la igualdad de derechos.

Tramitación del informe de vulnerabilidad

Por otra parte, la Mancomunidad de Servicios

Sociales de Ansoáin, Berrioplano, Berriozar, Iza y Juslapeña está trabajando, junto al resto de entidades sociales e instituciones autorizadas, en la regularización extraordinaria de extranjería como tramitadora y gestora del informe de vulnerabilidad.

Este modelo de certificado, gratuito y elaborado por el Ministerio, es requisito necesario para aquellas personas que están solas, es decir, que no viven con sus hijos/as menores de edad, ni con hijos/as mayores de edad con discapacidad o con necesidad de apoyo, ni con sus padres o madres o los de su pareja; para aquellas personas que no tienen un contrato de trabajo ni

posibilidad de conseguirlo, y para aquellas personas que no han solicitado asilo.

Desde que se inició el proceso de regularización extraordinaria, el pasado 20 de abril, más de 200 personas han acudido a la Mancomunidad de Servicios Sociales para pedir el informe de vulnerabilidad.

Si son usuarias de los servicios de la Mancomunidad y hay disponibilidad de personal, se les rellena el informe en esa primera cita. Cuando son casos nuevos, se les da cita para otro día con el fin de recoger información sobre la persona y poder cumplimentar el informe con todos los datos necesarios.


Zazpi hitzarmen herriko elkarteekin, euskara indartzeko

Berriozarko Udalak zazpi hitzarmen sinatu ditu herriko elkarteekin euskararen erabilera sustatzeko. Zehazki, ia 17.000 euro banatuko ditu, euskarak toki handiagoa izan dezan gure herriko hezkuntza, gizarte eta kultur arloetan.

Hitzarmenen funtsezko atal batek hezkuntza-komunitatea du ardatz. Hala, Mendialdea IIk, ikastetxeko Guraso Elkarteak eta Berriozar institutuak dirua jasoko dute ikasleen mintzamen eta ahozko jarduna sendotzea

xede duten jarduerak antolatzeko, bai eskola-orduetan, bai eskolatik kanpo. Era berean, Mendialdea I ikastetxeak baliabideak jasoko ditu euskara eta euskal kultura A eta G ereduera hurbiltzeko. Bestalde, AEKko Auzalor Euskaltegiarekiko lankidetzari esker, euskara ikasteko taldeak mantendu egingen dira, ikasle gutxi izan arren, bizilagunek herritik atera gabe izan dezaten euskara ikasteko aukera. Gizarte arloari dagokionez, Berriozarko Euskara Taldearekin egindako hitzarmenaren bidez,

bermatua dago urteko ekitaldi seinalatuak egingen direla, hala nola Euskararen Astea edo Agate Deuna. Azkenik, Xaloa Telebistarekin egindako hitzarmenari esker (ez zaio dirulaguntzarik ematen; tokia laga baitzaio), are gehiago hedatuko dira herriko jarduerak, eta bermatua dago Berriozarko albisteek are ikusgarritasun handiagoa izanen dutela hedabideetan.



Siete convenios con asociaciones locales para potenciar el euskera

El Ayuntamiento de Berriozar ha firmado siete convenios con asociaciones locales para fomentar el uso del euskera. Con una inversión de casi 17.000 euros, estos acuerdos buscan fortalecer la presencia del idioma en el ámbito educativo, social y cultural del municipio.

Una parte fundamental de estos acuerdos se centra en la comunidad educativa. Entidades como el Colegio Mendialdea II, la Asociación de Padres y Madres del centro educativo, y el Instituto Berriozar recibirán apoyo económico

para organizar actividades que refuercen la competencia y capacidad oral del alumnado, tanto dentro como fuera del horario lectivo. Asimismo, el Colegio Mendialdea I contará con recursos para acercar el euskera y la cultura vasca a los modelos A y G. Por su parte, la colaboración con el Euskaltegi Auzalor AEK asegura que se mantengan grupos de aprendizaje incluso con poco alumnado, facilitando que los vecinos y vecinas puedan estudiar sin salir del municipio.

En el ámbito social, el convenio con el Grupo de Euskera de Berriozar garantiza la celebración de eventos clave en el calendario, como la Semana del Euskera o Santa Águeda. Finalmente, el acuerdo con Xaloa Telebista (sin dotación económica, solamente cesión del espacio) refuerza la difusión de las actividades locales, garantizando la visibilidad de la actualidad de Berriozar en los medios de comunicación.

“Jaietan euskaraz jantzi!”, zure jaiak euskaraz jantzeko

Iazko arrakastaren ondotik, aurten ere euskararen erabilera sustatuko da herriko festetan, “Jaietan euskaraz jantzi!” kanpainaren bidez. Ekimenaren xedea da edozein gunetan zein unetan norberak hautatzen duen hizkuntzan eroso mintzatzea, eta herritarrek euskaraz mintzatzera animatzea, bai eta lehen hitza euskaraz egitera ere. Horrekin batera, herritarrei aditzera eman nahi zaie ez ibiltzeko hanka sartuko ote duten beldurrez, hizkuntzak hain zuzen ere hitz eginez ikasten baitira.

laz bezala, aurten ere gida azkar bat prestatu da txosnetan eta tabernetan euskaraz eskatzeko, ostalaritzarako aholku eta hitz erabilienean zerrendarekin batera, bai eta pegatinak ere. Baina, horrez gain, aurten lehen aldiz, kanpainaren irudia daramaten zapiak egonen dira eskura. Zapia aurtengo Euskararen Egunerako atera zen, eta helburua da jendeak abutzuko jaietan ere lotzea lepoan, euskarak bere lekua izan dezan ospakizunaren gune guztietan.

“Jaietan euskaraz jantzi!” vestirá de euskera sus fiestas

Tras el éxito del año pasado, Berriozar volverá a fomentar en las próximas fiestas el uso del euskera a través de la campaña “Jaietan euskaraz jantzi!”. Esta iniciativa busca que cualquier momento y lugar sea propicio para hablar cómodamente en la lengua que cada persona elija, animando especialmente a dar ese primer paso y pronunciar la primera palabra en euskera. En este sentido, se invita a la población a perder el miedo a cometer errores, recordando que los idiomas se aprenden y se perfeccionan precisamente a través de la práctica.

Además de la guía rápida para pedir en euskera, la lista de consejos y palabras más usadas para hostelería y las pegatinas identificativas, este año, como novedad, estarán disponibles los pañuelos con la imagen de la campaña. Las vecinas y vecinos de Berriozar ya los pudieron vestir durante la celebración del Euskararen Eguna, y el objetivo es que se los vuelvan a anudar durante las fiestas de agosto para que el euskera esté presente en todos los espacios de celebración.

Hogeita hamar urtean, euskara bultzatzen

Ekainaren 19an hiru hamarkada beteko dira euskararen erabilera eta normalizazioa garatzeko Udal Ordenantza indarrean sartu zenetik Berriozarren. 1996an onetsia, araudiaren ondorioz, Udal Euskara Zerbitzua sortu zen, hau da, orduz geroztik gure herriko hizkuntza plangintza hainbat arlotan koordinatu duen erakundea, administrazioan, irakaskuntzan eta aisian, hain zuzen.

Hogeita hamar urteko ibilbidean, aurrerapauso nabarmenak izan dira eta gauza aunitz dira nabarmentzekoak, hala nola udalean euskara erabiltzeko plana (2025ean onetsia), kirol arloko 'Aurrera Betil' ekimena edo herriko ostalaritza eta saltokietarako 'Euskarari Zabalik' proiektua. Halaber, haur eta gazteendako aisia eta denbora libreko eskaintza finkatu da (eskolaz kanpoko ekitaldiak eta Hazitxo Kluba), eta helduen prestakuntza, Auzalor euskaltegiaren bidez. Herrian, bestalde, eta Udalaren ekimenez, lehen inkesta soziolinguistikoa eginen da aurten, datu teknikoak eskuratzeko eta, haien bidez, zerbitzuaren zuzendaritza estrategikoa bideratzeko. Berehalako erronken artean, hainbat dira aipatzekoak, hala nola kultur aniztasunarendako erantzuna, herritarren mintzamaña sendotzea eta denbora libre euskalduntzea, bizikidetzarako ardatz gisa.



Tres décadas impulsando el euskera en Berriozar

El próximo 19 de junio se cumplen tres décadas desde la entrada en vigor de la Ordenanza Municipal para el desarrollo del uso y normalización del euskera en Berriozar. Esta normativa, aprobada en 1996, supuso la creación del Servicio Municipal de Euskera, un órgano que desde entonces ha coordinado la planificación lingüística de la localidad en áreas como la administración, la enseñanza y el ocio.

Durante estos treinta años de recorrido se han dado grandes pasos, destacando el plan de uso del euskera en el Ayuntamiento aprobado en 2025, el programa 'Aurrera Betil' en el ámbito deportivo o el proyecto 'Euskarari Zabalik' con la hostelería y los comercios del municipio. Asimismo, se ha consolidado la oferta infantil y juvenil de ocio y tiempo libre (actividades extraescolares y Hazitxo Kluba) y la formación para personas adultas a través del euskaltegi Auzalor.

Berriozar llevará a cabo este año su primera Encuesta Sociolingüística para obtener datos técnicos que marcarán la dirección estratégica del servicio. Entre los retos inmediatos destacan la respuesta a la diversidad cultural, el fortalecimiento de la capacidad de uso de la población y la euskaldunización del tiempo libre como eje de convivencia.

Euskara ikasteko laguntzak eskatzeko epea, zabalik

● **Ekainaren 1etik uztailaren 15era** dago zabalik euskara ikasten laguntzeko dirulaguntza-deialdiaren bigarren epea. Aurreko urteetan bezala, dirulaguntzek ikastaroaren zenbatekoaren % 40 beteko dute, eta udalerrian erroldatuak daudenek eta Berriozarko enpresa txikietan edo hemen ere autonomo dihardutenek eskatzen ahalko dituzte. Gainera, oraindik ere bada lekurik udako murgiltze ikastaroetan parte hartzeko (barnetegiak).

Bestalde, **ekainaren 30era arte** egonen da zabalik euskaltegiaren aurrematriculatzeko epea, euskara datorren 2026-27 ikasturtean ikasteko. Aipatu behar da A1 mailak % 100eko dirulaguntza jasotzen duela. Gainerako mailetan, berriz, badira Berriozarko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak.

Abierto el plazo de solicitud de ayudas para aprender euskera

● **Del 1 de junio al 15 de julio** permanece abierto el segundo plazo de la convocatoria de ayudas económicas destinadas a facilitar el aprendizaje del euskera. Como en años anteriores, estas subvenciones cubrirán el 40% del importe del curso y podrán solicitarlas tanto las personas empadronadas en el municipio como aquellas que trabajen en microempresas o ejerzan su actividad como autónomas en Berriozar. Además, todavía quedan plazas para participar en los cursos inmersivos de verano (barnetegis).

De cara a aprender euskera el próximo curso 2026-27, el plazo de prematriculaciones en el euskaltegi permanece abierto **hasta el 30 de junio**. Cabe destacar que el nivel A1 cuenta con una subvención del 100%, mientras que en el resto de niveles colaboran económicamente el Ayuntamiento de Berriozar y el Gobierno de Navarra.

Arantza Gómez La inmobiliaria de Berriozar



¿Quieres que tu casa valga 10.000€ más en septiembre?
Escanea aquí



exp REALTY

644 648 738

WhatsApp

TURBO
AUTOESCUELAS
TU AUTOESCUELA EN BERRIOZAR

Ven a nuestras oficinas e infórmate de nuestros servicios y tarifas

C/ Iruñalde, 1 • 31013 • Berriozar
948 948 30 06 20 | 636 585 086
turboberriozar@turboautoescuelas.com

www.turboautoescuelas.com

Emakumezkoen herri kirolak, ardatz El deporte rural femenino toma el protagonismo

Udal kiroldegiko pilotalekua emakumezkoen herri kirolen erdigunea izan zen joan den maiatzaren 22an, "Berriozar Herria" sariaren laugarren edizioa jokatu baitzen. Izan ere, 30etik gora parte-hartzaile aritu ziren lehian arpanean, txingetan, lokotxetan eta zaku lasterketan.

BKE Berriozar Kirol Elkarteak Udalarekin elkarlanean antolaturik, ekimenaren helburua da herri kirolean ari diren emakumeei ikusgarritasuna ematea betidanik gizonen eskuetan egon ohi diren kirol tradizional horietan. Lehiaketa ofizialaz gain, ikusleek binakako eskupilota erakustaldia gozatu zuten.



El frontón del polideportivo municipal se convirtió el pasado 22 de mayo en el epicentro del deporte rural con la celebración de la cuarta edición del Premio "Berriozar Herria". Este encuentro reunió a más de 30 participantes que compitieron en carrera de sacos, tronza y mazorcas.

Organizado por el club BKE Berriozar Kirol Elkarte en colaboración con el Ayuntamiento, el evento nació con el objetivo de consolidar un espacio propio y dar visibilidad a las mujeres en estas disciplinas tradicionales. Además de la competición oficial, el público pudo disfrutar de una exhibición de pelota a mano por parejas.



Entzule asko hileroko zikloari eta ohitura osasungarriei buruzko solasaldian

Éxito de participación en la charla sobre ciclo menstrual y hábitos saludables

● 50 lagun inguru bertaratu ziren joan den apirilaren 30ean hileroko zikloari buruzko solasaldira, gaia zientziaren, nutrizioaren eta kirolaren ikuspuntutik jorratuta. Bi hizlari aritu ziren: Miren Barberia biomedikuntza doktorea eta TD1 teknikaria mendian, eta Iñigo Perales, kirol arloko nutrizionista. Azaldu zutenaren arabera, elikadura-ohitura eta ariketa egokiak oinarritzkoak dira hormona-osasun orekaturako. Aipatu zuten, halaber, garrantzitsua dela hileroko zikloa ezagutzeko, jarduera fisikoa eta elikadura emakumearen etapa bakoitzaren behar fisiologikoetara egokitzeko.

● Alrededor de 50 personas asistieron el 30 de abril a la charla sobre el ciclo menstrual, desde un punto de vista basado en la ciencia, la nutrición y el deporte. Impartida por Miren Barberia, doctora en biomedicina y TD1 en montaña, e Iñigo Perales, nutricionista deportivo, abordaron cómo unos hábitos alimenticios y un ejercicio adecuados actúan como pilares para una salud hormonal equilibrada, destacando al mismo tiempo la importancia de conocer el ciclo menstrual para adaptar la actividad física y la alimentación a las necesidades fisiológicas de cada etapa de la mujer.

Mendialdiaren hirugarren edizio arrakastatsua, kirola eta gizartea uztartuta

Mendialdia ekimenaren hirugarren edizioa egin zen gure herrian, joan den apirilean, hau da, BKE Mendi Eskolak antolatutako mendia astea. "Okm-ko abenturak" lelopean, ekimena aurten ere topagunea izan da natura maite duen jendearentzat, kirolzaletasuna, gizarte kontzientzia eta ingurumenarekiko errespetua uztarturik.

Kultur eskaintza oparoa benetan, udalaren hainbat gunetan garatutakoa. Ramontxu Uriz ipuin-kontalaria, adibidez, Liburutegian aritu zen; Luis Arrietaren 'Sustraiak' dokumentala Entzunaretoan eman zen, eta Raúl Maiza eta Amaia Olaverriren Peruko espedizioari buruzko solasaldia, berriz, Labarga elkartearen. Azken saioa, Xabier Anduezen omenezko ekitaldia, Zulo Alai elkartearen burutu zen: batetik, hari buruzko solasaldia eta, bestetik, haren figura gogora ekartzen duen dokumentalaren aurre-estreinaldia. Kiroldegian, gainera, "Gailurretan izan gaitun" argazki erakusketa egon zen hamabostaldian ikusgai.



Mendialdia consolida su tercera edición uniendo deporte y sociedad

Berriozar celebró el pasado mes de abril la tercera edición de Mendialdia, la semana de la montaña organizada por BKE Mendi Eskola. El ciclo, que se desarrolló bajo el lema "aventuras km0", logró consolidarse un año más como un espacio de encuentro para las y los amantes de la naturaleza, combinando la pasión por el deporte con la concienciación social y el respeto al medio ambiente.

La programación incluyó una variada oferta cultural que se repartió por diferentes espacios municipales. El público pudo disfrutar del cuentacuentos de Ramontxu Uriz en la Biblioteca, la proyección del documental 'Sustraiak' de Luis Arrieta en el

Auditorio y la charla sobre la expedición a Perú de Raúl Maiza y Amaia Olaverri en la Sociedad Labarga. El cierre del ciclo tuvo lugar en la Sociedad Zulo Alai con un acto de homenaje a Xabier Andueza, que incluyó una charla y el preestreno de un documental sobre su figura. Además, el Polideportivo acogió durante toda la quincena la exposición fotográfica "Nos queremos en las cimas".

VEKTOR FORGE fitness ekitaldia, Berriozarren

● Berriozarko Ilargi pistan, VEKTOR FORGE izeneko ekitaldia egingen da ekainaren 27an eta 28an. Fitness ekitaldi lehiakorra da eta hainbat atleta bilduko ditu jendearendako zabalik egonen den lehiaketa bizi eta zorrotzean.

Atletek 5 WOD (Workouts of the Day) izeneko kanporaketa probak gaudituko beharko dituzte, haien indarra, erresistentzia eta trebetasuna neurtzeko. Kategoria bakoitzeko 20 talde edo bikote onenak bakarrik sailkatuko dira final handirako.

VEKTOR FORGEk profil guztietarako diseinatutako kategoriak eskaintzen ditu, eta bikoteka parte hartu daiteke, bai emakumezkoetan, gizonezkoetan eta mistoak, bai eta lau laguneko taldeetan ere, aldaera berberak direla.

Evento de fitness VEKTOR FORGE en Berriozar

● La pista Ilargi de Berriozar será escenario los días 27 y 28 de junio, de VEKTOR FORGE, un evento de fitness competitivo que reunirá a diferentes atletas en una competición dinámica, exigente y abierta al público.

Las y los atletas deberán superar 5 WODs (Workouts of the Day) clasificatorios que pondrán a prueba su fuerza, resistencia y agilidad. Solo los 20 mejores equipos o parejas de cada categoría lograrán su pase a la gran final.

VEKTOR FORGE ofrece categorías diseñadas para todos los perfiles, permitiendo la participación en modalidades de parejas masculinas, femeninas y mixtas, así como en equipos de cuatro integrantes bajo las mismas variantes.

Udaldia Berrikilaneko igerilekuetan

● Kanpo igerilekuak ekainaren 12tik irailaren 13ra irekiko dira. Kanpoaldeko bainu eremuaren ordutegia 10:00etatik 21:00etara bitartekoa izanen da. Barne igerilekuak, bestalde, 8:30etik 15:00etara eta 19:30etik 21:30era egonen dira zabalik, uztailan izan ezik, barneko igerilekua itxita egonen baita mantentze-lanak egiteko.

Ekainaren 21ean, igandearekin, Bazkidearen Jaia ospatuko da, jarduera sorta zabala antolatuta.

Temporada de verano en las piscinas de Berrikilan

● Las piscinas exteriores abrirán del 12 de junio al 13 de septiembre. El horario de la zona de baño exterior será de 10:00 a 21:00 horas. Por su parte, las piscinas interiores abrirán de 8:30 a 15:00 y de 19:30 a 21:30 horas, excepto en julio, mes en el que el vaso interior cerrará por mantenimiento.

El domingo 21 de junio se celebrará la Fiesta de la Persona Abonada, con una amplia programación de actividades.

Memoria historikoa berreskuratzeko ekimena Berriozarren

Joan den maiatzean, memoria historikoaren jardunaldien aurtengo edizioa egin zen Berriozarren, hainbat kultur eta kirol jarduera burututa.

Batetik, Eliza katolikoak egindako immatrikulazioei buruzko erakusketa jarri zen ikusgai Kulturgunean eta hitzaldi bat ere egin zen,

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak antolatuturik. Maiatzaren 6an, halaber, Nafarroako Fusilatuen Senideen Elkarteko presidentek, Amaia Lergak, "Tropezones. La Memoria a ras de suelo" dokumentala aurkeztu zuen, Nafarroan 1936an fusilatutakoen senideen oroitzapenean sakontzen duen lana.

Maiatzaren 17an, igandearekin, bi ekitaldi garrantzitsu egin ziren. Goizean, "La Fuga" Mendi Lasterketa abiatu zen Ezkaba menditik, tontorra Urepele herriarekin lotzeko, sinbolismoz beteriko ibilbidean. Arratsaldean, berriz, Entzunaretoan, Luna Hiena taldeak "Cantando bajo las balas" antzezlanana eman zuen.



Recuperación de la memoria histórica en Berriozar

Durante el pasado mes de mayo, Berriozar acogió una nueva edición de las Jornadas de memoria histórica con la programación de diferentes actividades culturales y deportivas. Por un lado, el Kulturgunee fue el escenario de la exposición y la charla sobre las inmatriculaciones de la Iglesia Católica, organizadas por la Plataforma de Defensa del

Patrimonio Navarro. Asimismo, el 6 de mayo, la presidenta de la Asociación de Familiares de Fusilados de Navarra en 1936 (AFFNA36), Amaia Lerga, presentó el documental "Tropezones. La Memoria a ras de suelo", un trabajo que profundiza en el recuerdo de los familiares de fusilados en Navarra en 1936. El domingo 17 de mayo fue una de las jornadas

más intensas del programa. Por la mañana, el monte Ezkaba fue el punto de partida de la carrera de montaña "La Fuga Mendi Lasterketa", que unió la cima con Urepele en un recorrido cargado de simbolismo. Por la tarde, el Auditorio acogió la representación teatral "Cantando bajo las balas", de la compañía Luna Hiena.

Liburutegiko jarduerak ikasturtea amaitzeko Actividades en la Biblioteca para cerrar el curso

Apiril eta maiatzean, etengabeak izan dira Berriozarko Liburutegiko jarduerak. Ekimen nabarmenen artean, aipatzekoak dira "Irakurketa Erronka", hau da, irakurleendako zozketak eta abantailak, eta Ramontxu Urizen eta Inés Bengoaren (argzkian) ipuin kontaketa saioak, Mendiaren Astearen eta Liburuaren Egunaren karira, hurrenez hurren. Egitarauaren osagarri, maiatzean, "El baile de las libélulas" filma laburra eman zen (ciclo FILA6), eta Gael Zamorak album ilustratuei buruzko tailerra eman zuen.

Horrez gain, Liburutegia irakurle talde guztien topagunea izan da ikasturtean zehar (euskarazkoa, gaztelaniazkoa, feminista, haurrak eta gazteak). Guztiek ere heldu den ikasturtean berrelduko diote.

Udako ordutegia

Ekainaren 15etik aurrera, Liburutegiak udako ordutegia izanen du. Zehazki, 8:30etik 14:30era egonen da zabalik jendearendako.

Durante abril y mayo, las actividades de la Biblioteca de Berriozar no han parado. Entre las iniciativas destacadas figuran el "Reto Lector", con sorteos y ventajas para lectoras y lectores, y las sesiones de cuentacuentos de Ramontxu Uriz e Inés Bengoa (en la foto) con motivo de la Semana de la Montaña y el Día del Libro respectivamente. La programación se completó en mayo con la proyección del corto "El baile de las libélulas" (ciclo FILA6) y el taller creativo de Gael Zamora sobre álbumes ilustrados.

Además, durante este curso la Biblioteca ha sido punto de encuentro de los diferentes clubes de lectura (castellano, euskera, feminista, infantil o juvenil), que retomaran su actividad al inicio del curso que viene.

Horario de verano

A partir del 15 de junio, la Biblioteca cambiará su horario de apertura, pasando a atender al público en horario de mañana, de 8:30 a 14:30 horas.



Amaiera bikaina Musika Eskolako ikasturterako

● Behin ikasturtea amaiturik, Francisco Casanova Musika Eskolako datoren 2026-27 denboraldian jarria du begirada. Izan ere, matriculazio epea maiatzean egon da zabalik eta, datuen arabera, 150 birmatriculazio izan dira. Maiatzaren 20an, gainera, ate zabaleko eguna egin zen, eta hastapeneko ikasleek kontzertua eman zuten hil beraren 27an.

Bestalde, ekainaren 15ean, 16an eta 17an, ikasleek ikasturte akaberako kontzertuak emanen dituzte, taldeari, bandari, konboei eta kolektiboiei dagokienez.

Broche de oro musical para el curso de la Escuela de Música

● La Escuela de Música Francisco Casanova finaliza sus clases con la vista puesta en el próximo curso 2026-27. Durante el mes de mayo ha permanecido abierto el periodo de matriculación, registrando 150 rematriculaciones. Durante ese mismo periodo, el centro celebró su jornada de puertas abiertas el 20 de mayo y el concierto de alumnado de iniciación el 27 del mismo mes.

Por otro lado, los días 15, 16 y 17 de junio, el alumnado ofrecerá los conciertos de fin curso de agrupaciones, banda, combos y colectivos.



Den-dena inpresio digitalean

Todo en impresión digital

planoak • irudiak eskaneatu • kautxuzko zigiluak •
kopiak • koadernaketak • plastifikazioak • fakturak
eta albaranak • txartelak • kartelak • paper gauzak

planos • escaneo de imágenes • sellos de caucho •
copias • encuadernaciones • plastificaciones •
facturas y albaranes • tarjetas • carteles • papelería

Pza. Donantes de Navarra, 9
(Decathlon ondoan) Berriozar
Tel. 948 076 495
a-zero@a-zero.eus

De lunes a jueves, 9:30-13:30 y 16:00-18:00
Viernes, 9:00 - 17:00
Astelehenetik ostegunera, 9:30-13:30 eta 16:00-18:00
Ostiraletan, 9:00-17:00



Iruñalde, 1 bajo-trasera
(Plaza San Esteban)
Berriozar

948 301 151

Giro ederra Berriozarren Egunean

● Berriozarren Egunak berriz ere kolorez, tradizioz eta bizikidetzaz bete zituen gure karririkak, adin guztietako jendea bilduta. Izan ere, goiz-goizetik hasita, jaiak bi erdigune izan zituen, Euskal Herria plaza eta Eguzki plaza, denetarikoko ekitaldiak eginda: parpaigileen topaketa, artisautza azoka, ohitura osasungarrietako postuak, Eskulan taldearen taloak, Erraldoi Konpartsaren emanaldiak, Aires del Sur taldea, Hulargi eta Txori zuri dantza taldeak eta Berriozarko Doinua musika banda; horrez gain, kaldereteak, batukada, haur emanaldiak, dantzaldia Equus taldearen eskutik, herri dantzak Berriozarko gaitarien eskutik eta Eguzki txarangaren kalejira.

Gran ambiente el Día de Berriozar

● El Día de Berriozar volvió a llenar nuestras calles de color, tradición y convivencia en una jornada que congregó a vecinos y vecinas de todas las edades. Desde primera hora, la Plaza Euskal Herria y la Plaza Eguzki se convirtieron en los epicentros de la fiesta con el encuentro de encajeras, la feria de artesanía, los puestos del programa de hábitos saludables, los talos a cargo del Grupo Eskulan, las actuaciones de la Comparsa de Gigantes, el grupo Aires del Sur, el grupo de danzas Hulargi y Txori zuri o la banda de música Doinua de Berriozar, calderetes, batucada, actuaciones infantiles, verbena con Equus, bailes tradicionales con los y las gaiteras de Berriozar y el recorrido con la Txaranga Eguzki.





Udako solstizioaren ospakizuna

● Berriozarko bizilagunek ongietorria emanen diote udari ekainaren 23an gauetz, San Joan suak piztuz, ohi denez. 22:00etan, herri akelarrea eginen da Euskal Herria plazan, nahi duen orok parte har dezan.

Herritarren eta ingurumen segurtasuna bermatze aldera, Udalak leku bat moldatuko du, behar bezala seinalizatua, Gipuzkoa etorbidean, suak pizteko eta, gainera, egurra ere eramanen du. Pizten diren su guztiak jende guztiak erabiltzeko izanen dira eta erabat dago debekatua bestelako suak egitea.

Gau horretako afariak Basoa pasealekuan egiten ahalko dira barbakoak eta tresnen gainean. Ez, ordea, zuzenean lur gainean. Erabiltzaileek ingurua garbitu eta dena txukun-txukun utzi beharko dute.

Celebración del solsticio de verano

● El vecindario de Berriozar dará la bienvenida al verano la noche del 23 de junio con las tradicionales hogueras de San Juan. A las 22:00 horas tendrá lugar en la Plaza Euskal Herria un akelarre popular abierto a la participación ciudadana.

Con el objetivo de garantizar la seguridad ciudadana y medioambiental, el Ayuntamiento habilitará un espacio debidamente señalizado en la Avenida Gipuzkoa para poder encender los fuegos y proporcionará madera para poder realizarlas. Todas serán de uso común, quedando terminantemente prohibida la realización de fuegos ajenos.

Las cenas durante esa noche podrán realizarse en el Paseo Basoa sobre barbacoas, infiernillos, etc., y nunca sobre el suelo directamente. Las personas usuarias deben encargarse de limpiar la zona y dejar el espacio en perfectas condiciones.

Erritmo flamenkoa, Berriozarren

Gure herriak ederki ospatu zuen bere Apirileko Azoka, joan den apirilaren 18an, herria musikaz eta dantzaz beterik. Gauza asko egin ziren, hala nola zaldi gaineko paseoak Valle de Aranguren Zaldi Zentroaren eskutik, Aires del Sur dantza taldearen artea eta Savia Nuevaren musika.

Herri bazkaria ere ekitaldi guztiz aipagarria izan zen, bizilagunak besta giro ederrean bildu baitziren. Ondoren, DBureo taldearen emanaldiaren erritmo bizia gozatu genuen, bazterrak eta jendea ederki girotzeko. Aurtengo edizioari bukaera emateko, hilaren 26an, igandearekin, meza rociera tradizionala egin zen, ohi denez. Apirileko Azoka, horrenbestez, berri ere izan da jendea elkartzeko eta gozatzeko gunea.

Ritmo flamenco en Berriozar

Berriozar se transformó el pasado 18 de abril por un día en el escenario de una nueva edición de su Feria de Abril, una jornada que inundó la localidad de música y baile. El programa con los paseos a caballo del Centro Ecuestre Valle de Aranguren, seguidos por el arte del grupo de baile Aires del Sur y la música de Savia Nueva.

Uno de los momentos más destacados fue la comida popular, que reunió a vecinas y vecinos en un ambiente festivo antes de dar paso al grupo DBureo, que mantuvo el ritmo de la celebración durante la tarde.

Como cierre de esta edición, el domingo 26 de abril tuvo lugar la tradicional misa rociera, un acto que puso el punto final a esta cita anual que sigue consolidándose como un espacio de encuentro y disfrute en el municipio.



Berriozar, objektiboaren bitartez

Joan den maiatzaren 16an, herriko Bergazki eta Labarga elkarteak batera aritu ziren Berriozarko Argazki Rallyaren hamargarren edizioa egiteko. Guztira, 12 argazki zalek parte hartu zuten bost proba tematikotan, beren trebetasunak eta sormena erakusteko. Eguna bukatzeko, bazkaria egin zuten Labarga elkartearen. Sari banaketa, bestalde, joan den ekainaren 4an egin zen.



Berriozar a través del objetivo

El pasado 16 de mayo, las asociaciones locales Bergazki y Labarga se unieron para celebrar la décima edición del Rally Fotográfico de Berriozar. Un total de 12 personas aficionadas a la fotografía se dieron cita para participar en cinco pruebas temáticas, donde tuvieron que demostrar sus habilidades y creatividad. La jornada finalizó con un almuerzo en la sociedad Labarga y la entrega de premios tuvo lugar el pasado 4 de junio.

HEZKUNTZA EDUCACIÓN

Eskola publikoko matrikulazioa igo da

Datorren ikasturterako matrikulazio epea bukatu ondoren, Berriozarko eskola publikoak 3 urteko bi ikasgela izanen ditu hizkuntza eredu bakoitzean. Mendialdea I ikastetxeari dagokionez, 22 ikasle berri matrikulatu dira, eta Mendialdea II, berriz, 27. Beraz, bi ikasgela berri egonen dira ikastetxeko. Ikastetxeek eskualde izaera dutenez, hau da, zerbitzua ematen dietenez Berriozarko, Berriobeitiko eta Txulapaingo familiei, bai eta Itzako eremu batekoei ere, aipatu behar da bi eskolek (Mendialdea I eta II) eskualdeko haur guztien % 43 hartu dituztela. Herri bakoitzeko datuak aztertzen badira, eskola publikoak are atxikimendu handiagoa du Berriozarren, haur guztien % 47,5ekin.

Sube la matriculación en la escuela pública


Tras el cierre del periodo de matriculación para el próximo curso escolar, la escuela pública de Berriozar contará con dos aulas de 3 años en cada uno de los modelos lingüísticos. En el caso de Mendialdea I, se han matriculado 22 nuevas alumnas y alumnos, y en Mendialdea II 27, garantizando así dos nuevas clases por centro. Dada la naturaleza comarcal de estos centros, que ofrecen servicio a las familias de Berriozar, Berrioplano, Juslapeña y una zona de Iza, el índice de captación global entre las dos escuelas (Mendialdea I y II) se sitúa en un 43% respecto al total de la comarca. Si se analizan los datos específicos de cada localidad, el arraigo de la escuela pública es todavía mayor en Berriozar, alcanzando un índice de captación del 47,5%.

Mendialdea I.eko ikasleak udal bulegoetan izan dira bisitan

- Mendialdea I ikastetxeko haur hezkuntzako 3. mailako ikasleak aurten ere bisitan ibili dira udal egoitza batzuetan. Udaletxera joan zirenean, topaketa ere izan zuten alkatearekin, bai eta Udalaren Auzo Bulegoko, Hirigintzako, Idazkaritzako, Kontuhartzaitzako eta hainbat udal zerbitzutako langileekin ere. Halaber, batzar aretoa, Kulturgunea eta udaltzaingoaren bulegoak bisitatu zituzten. Bestalde, Liburutegi Publikoa eta Eguneko Zentroa bisitatzean, jarduera ludikoetan ere parte hartu zuten.

Visita del alumnado de Mendialdea I a dependencias municipales

- El alumnado de 3º de Infantil del Colegio Mendialdea I participó un año más en las visitas a varias dependencias municipales. La visita a la Casa Consistorial incluyó un encuentro con el alcalde y con trabajadoras/es de la OAC, Urbanismo, Secretaría e Intervención y diferentes servicios municipales, y la visita al Salón de Plenos, el Kulturgune y las dependencias de la Policía Municipal; mientras que en la visita a la Biblioteca Pública y el Centro de Día participaron en diversas actividades lúdicas.



**IZAN NAHI DUZU GURE HERRIKO ARLO
GUZTIETAKO EKINTZA, DEIALDI ETA
PROIEKTUEN BERRI?**

**¿QUIERES ESTAR AL DÍA DE LAS
ACTIVIDADES, CONVOCATORIAS Y
PROYECTOS DE LAS DIFERENTES ÁREAS
DE NUESTRA LOCALIDAD?**



**JARRAITU BERRIOZARKO UDALAREN SARE SOZIALAK
SIGUE LAS REDES SOCIALES DEL AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR**



**EGIN BAT UDALAREN WHATSAPP KANALAREKIN
SÚMATE AL CANAL DE WHATSAPP DEL AYUNTAMIENTO**



Jakizu zeuk zuzenean!

¡Que no te lo cuenten!